

PRENTSA OHARRA

UDALAK LAU RADAR PEDAGOGIKO BERRI JARRI DITU BIDE-SEGURTASUNA AREAGOTZEKO

- Horetako bi Txorierri Etorbidean kokatzen dira eta beste bi Butroi kalean ipini dira, bi noranzkoetan. Laurak martxan daude jada, eta 2024ko aurrekontu parte-hartzaileen bidez jasotako eskaerei erantzuten diete.
- Informazio-radarrak dira, eta beren eginkizuna eta helburua gidatzen ari garen abiaduraz denbora errealean kontzientziatzea da, ez isunak jartzea.
- Asmoa oinezkoentzako udalerrri seguruagoa eta atseginagoa eraikitzea da, eremu horietan dabiltzan ibilgailuen abiadura murriztuz eta 30 kilometro orduko abiadura-mugarekiko errespetua eta kontzientziatzea sustatuz.

Derio, 2024ko uztailaren 10ean. Oinezkoentzat seguruagoa eta atseginagoa izango den udalerrri bat eraikitzeko apustuari eutsiz, Derioko Udalak lau radar pedagogiko jarriko ditu udalerriko bi puntutan. Kokalekurik onenak aztertu ondoren, horietako bi Txorierri Etorbidean kokatu dira eta beste bi Butroi kalean, bi noranzkoetan. Laurak daude dagoeneko martxan. 2024ko aurrekontuen partaidetza-prozesuan bizilagunek zehaztutako lehentasunei erantzuten die jardura honek; izan ere, udalerriko hainbat tokitan radar pedagogiko berriak jartzea izan zen ekimenik baloratuenetako bat.

Gailu horien helburua informazioa ematea da, pertsonak jabetu daitezen zein abiaduratan zirkulatu duten, eta erregistratutako datuak ez dira inola ere erabiliko isunak jartzeko, ez baitira matrikulak erregistratuko, ezta gidariak edo ibilgailuak identifikatuko ere. Radarrek ibilgailuaren abiadura berdea edo gorria erakusten duen display bat dute. 30 kilometro orduko abiadura gainditzen ez bada, zenbakia berdez agertzen da. Abiadura hori gaindituta, gorri pizten da, arreta deitzeko helburuarekin.

PRENTSA OHARRA

Esther Apraiz alkateak azpimarratu du neurriaren helburua Derio seguruago bat eraikitzea dela. *“30 kilometro orduko muga duten eremu horietan dabiltzan ibilgailuen abiadura murriztea eta abiadura mugaren errespetua eta kontzientziazioa sustatzea da helburua. Gero eta mugikortasun modu gehiago daude, eta guztion arteko oreka eta harmonia bilatzeko beste urrats bat da, Derio guztiontzat seguruagoa eta atsegina izan dadin”,* laburbildu du. Gogoratu beharra dago radar pedagogiko berri hauek, Mungialde Etorbidean instalatu zirenei gehitzen zaizkiela.

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus